

EZ ITZAZU KANPOAN UTZI



**Etxerik gabeko pertsonen Kanpaina
2022ko urriaren 30**

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



FINANTZATZAILEA



ESTALDURARIK GABE

EZ ITZAZU KANPOAN UTZI



**Etxerik gabeko pertsonen Kanpaina
2022ko urriaren 30**



INOR EZ
ETXERIK
GABE



TEILATU BAT EDUKITZEA EZ DA ETXE BAT EDUKITZEA.

Etxegabe esaten diogun pertsona ez da babesteko teilatu fisiko bat ez duena bakarrik: beharrezkoa dena eduki gabe bizi dena da etxegabea, oinarritzkoa ere ez duena. Etxebizitza osasungaitzetan bizi dena, argirako eta uretarako sarbiderik gabe, koba edo txaboletan, zubi baten azpian, gainjarritako zur batzuen azpian edo beste pertsona askorekin pilatuta bizi dira.

Egoera horietan, ezinezkoa da bizimodu duina izatea.



OSASUN-, GIZARTE- EDO LEGE-ESTALDURARIK GABE... ETXE DUINIK GABE

Gero eta **pertsona** gehiago daude gizartetik baztertuta. Babesik gabe, baliabiderik gabe, aukerarik gabe, beren **eskubideak urratuta...** gaur egun, inoiz baino gehiago, sostengua eskainiko dien, integratuko dituen eta **parte hartzeko** aukera emango dien **Laguntza-sare bat** behar dute.



EZABA DITZAGUN ESTEREOTIPOAK ETA AURREIRITZIAK. PERTSONAK DIRA, ZU BEZALAKOAK.

Ez dezagun jendea estigmatizatu non edo nola bizi den kontuan hartuta.

Lehenik eta behin, zure eskubide berak dituzten pertsonak dira.

Ez da beti izaten arropa saretua duen gizon bat, alkohol- edo droga-arazoak dituenak. **Kalean gure ondotik pasatzen diren etxegabe asko daude:** emakumeak, gizonak, gazteak... etxerik gabe, lanik gabe, laguntza eskatzeko familiarik gabe, lagunik gabe.

Egiazko bizitzarako guneek –hau da, mina, pobrezia eta bakardadea baina poza, **topaketa eta ospakizuna** ere bateratzen direnak– aukera ematen digute besteekin konektatzeko, eutsi egiten gaituzte; gure izena, **gure esentzia** gogoratzen dizkigute.

INOR EZ
ETXERIK
GABE





EMAN IEZAIEZU ESTALDURA.

Ez onartu etxegabeak estalduratik kanpo, baztertuta eta babesik gabe geratzea. Pertsonak dira, zu eta ni bezalakoak. Aldatu zure begirada. Ez itzazu epaitu: **parte hartu** gurekin **bizitzarekin berriro konektatu** ahal izan daitezen.

-  **Estatuko 5** familiatik batek bizitegi-bazterketa jasaten du.
-  **Etheen % 2,3ak** etxebizitzatik kanporatzeko mehatxuren bat du.
-  Eremu marjinaletako etheen ehunekoa laukoiztu egin da azken hiru urteetan.

(Foessa Fundazioaren 2022ko txostena: "Kohesio sozialaren bilakaera eta COVID-19aren ondorioak Espainian").

INOR EZ
ETXERIK
GABE



ERABATEKO ALDAKETAREN ALDE. **SARE** SOZIAL BATEN ALDE HAIEN BIZITZA ITZAL EZ DADIN

Etxegabeen aldeko Pertsonen Kanpainan, 30 urteko gure ahalegina da pertsona pobreenek bizi duten muturreko zaugarritasunaren errealitatea bistaratzea.

Denbora horretan, pertsona gehiago etxerik gabe geratzeko **arriskua areagotu egin da**. Baina pertsonen baliabideak, **arreta eta zaintza eskainiz gero**, haien bizitza hobetu eta **duintasun-espazioak, eskubideak eta afektuak berreskuratu ditzakete**.

Herritarrak, komunikabideak, Gizarte Zerbitzuak, Administrazioak... **inplikatzera** behartuta gaude, ez ikusiarena egin gabe egunetik egunera hazten ari den eta gero eta kezkagarriagoa den errealitateari, gure gizartearen ondasun komuna ahultzen ari baita.

Gizartea pertsona guztiak gara.